



Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava

[www.araba.eus](http://www.araba.eus)

# Prentsa Oharra Nota de Prensa

## Foru Aldundiak Arabako kultura “inoiz baino biziagoa” aurkeztu du

Iragarri du 500.000 euro baino gehiago bideratuko direla programaziora, besteak beste uda honetan bost kontzertuko “ad hoc” ziklo bat antolatzeko herrietan

**Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 1a.** Ana del Valek zuzentzen duen Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak “Kultura Araban, inoiz baino biziago” izeneko kanpaina aurkeztu du gaur, eta horren barruan bilduko du kultura programazioa berreskuratzeko egin duen apustu osoa, “betiere osasun egoerak ahalbidetzen badu eta segurtasun neurriak betez”.

“Sailean —adierazi du del Valek— kulturarekiko konpromiso sendoa hartu dugu krisialdi honetan eta, zehazki, kultura programazioa berrartzearekin, herritarrek merezi dutelako baina, batez ere, une honetan Arabako kultura sektoreari eta inguruan mugiarazten duen industria guztiari lagundu behar diogulako”.

Horiek horrela, foru diputatuak hiru gauza aurkeztu ditu: lehenik eta behin, jakinarazi du bere sailak 500.000 euro baino gehiagoko inbertsioa egingo duela programaziorako. “Hortaz, hainbat programa egin ahal izango dira, hala nola Kaleko Arteen Zirkuitua, Musika Klasikoaren Zikloa eta organoarena, Araiako Umore Antzerkiaren Jaialdia eta hura lurraldean herriz herri eramatea, Magialdi Araba eta Arabako Antzinako Musikaren Astea”. Aldundiaren programazioa zazpi kuadriletara eta Trebiñura iritsiko da, eta 40 udalerrri baino gehiagotan eta 50 herri ingurutan izango da.

Programa horiez gain, beste batzuk ere egongo dira, sailaren dirulaguntzarekin beste batzuek ekoitziak; besteak beste, Bernaola Jaialdia, Atauri Art, Dan Álava, Zurrumbilo, Haziara, Festikale, Gazte TAleNT, GazteFilm Fest



# Prentsa Oharra Nota de Prensa

eta abar. “Kontuan hartuta programa batzuek hainbaten partaidetza dutela, inpaktu ekonomikoa askoz handiagoa da sektorean”, esan du.

Bigarrenik, foru diputatuak xehetasunak eman ditu herrietan egingo den “Kultura Araban, inoiz baino biziago” izeneko kontzertu zikloari buruz. Uda honetarako *ad hoc* programatu dira kontzertuak, helburu bikoitzarekin: kulturarako espazioak berreskuratzea eta, horrekin, bertako kulturaren industria bultzatzen laguntzea. Honako hauek, hain zuzen ere:

- Uztailaren 4an, 20:00etan, Iruña Okan: Harresian Zulo.
- Uztailaren 4an, 21:00etan, Ribabellosan: Aldakan.
- Uztailaren 18an, Guardian: Elh Malick Afro-Reggae.
- Uztailaren 25ean, Lantziegon: Dr Maha’s Miracle Tonic
- Uztailaren 25ean, 21:00etan, Gesaltza Añanan: Daddy’s Funclub

Azkenik, uda honetan “kulturaren berpizte honi” lagun egingo dion kartela azaldu nahi izan du foru diputatuak. Kartelaren egilea Yolanda Mosquera arabar irudigile ezaguna izan da, eta Asier Iturralde diseinatzaile grafikoarekin lankidetzan egin du, Aldundiak Euskadiko Ilustratzaileen Elkartearekin batera egin zuen deialdi azkar bati esker, zeinaren helburua baitzen lan eta jarduera aukerak sortzea Arabako diseinu grafikoaren eta ilustrazioaren sektoreetan. Kartel horri esker, 4.500 euroko ordaina jasoko dute.

“Kartelak adierazi nahi dugun hori guztia transmititzen du: Arabako kulturaren berpiztea, natura birsortzen den bezala edo tximeletak itxuraldatzen diren bezala, bizia jariatzen da, jai edo ospakizun giroan jariatu ere”. Izan ere, del Valen esanetan, egilearen asmoa izan da “irudi bat sortzea, bisualki oso deigarria, kontzeptuala; ikuskizunera, dibertsiora eta, batez ere, poztasunera bueltatuko gaituena.”

“Kontuan hartuta programazioaren aldeko apustu hori, ondarea zaintzeko inbertsioei eusteko egin dugun apustua eta A planari loturiko bost laguntza lerroak, uste osoa dugu sektorea ia osorik hartzen dugula barnean eta, hortaz, esan daiteke luzerako daukagula kultura, Araban inoiz baino biziago dagoelako”, esan du del Valek, amaitzeko.